

la erabatekoa

Herrialdeko enpresen %90ek bat egin zuten geldialdiarekin, eta komertzioen %80k itxi zuten

Jon Eskisabel / Donostia

◀ Greba orokorreko deialdiak ia erabateko erantzuna izan zuen Gipuzkoan. Industria arloan, herrialdeko enpresen %95 gelditu ziren —be-

rrehundik gora enpresatik hamalauk soilik egin zuten lan, eta beste hamarrek greba partziala egin zuten—. Komertzioetan joera ez zen hain bateratua izan, baina, oro har, erantzun ona izan zen (%80). Zen-

bait herritan —Lasarte-Oria, Beasain...— dendak zabaltzeko erabakia hartu zuten merkatariek, geroago piketeek itxiaz bazituzten ere. Donostian erantzuna apalagoa izan zen lehen orduetan, %50 ingurukoa.



EDURNE KOCH

Irungo tren geltokiak ezohiko irudia agertzen zuen atzo goizean, greba deialdiak izan zuen erantzunaren seinale.

DONOSTIAN grebak erantzun ezberdina izan zuen auzoen arabera. Horrela, Antiguan, Alde Zaharrean, Egian eta Grosen, besteak beste, erabatekoa edo ia erabatekoa izan bazen ere, erdiguneko denda askok —arropa eta harribitxi dendak batez ere, baina baita zenbait janari dendak, okindegik eta eguneko menua iragartzen zuten tabernek ere— normaltasunez ireki zituzten ateak goiz-goizetik. Horieta gehienek eguerdian itxi zuten, piketeen eta manifestarien bisita jaso eta gero. Bestetuetan, piketeak ez ziren hain eraginkorrrak izan. Amara Berriko zenbait dendak zabalik jarraitzen baitzuten arratsaldeko ordu-bietan. Pikete nagusia, bostehun lagun inguruk osatua, bederatziatan abiatu zen erdigunetik, eta Amaran amaitu zuen. UGT eta CCOO sindikatuen arabera, komertzioak grebari emaniko erantzuna %50ekoa izan zen lehen orduetan.

Jaietarako grebarik ez

■ BERGARA eta Beasainen greba orokorreko deialdiak gainerako herriekiko erantzun ezberdina izan zuen. Izan ere, bi herriotan jaiak ospatzen ari dira, eta grebak festari kalte egin ez ziezaion moduak asmatu zituzten.

Bergaran, esaterako, tabernariak arratsaldeko zortzietan zabaltea erabaki zuten, azken asteetan sindikatuarekin hainbat bilera egin eta gero. Herriko denda gehienek ere za-

baldu zuten arratsaldean, goizean ez bezala.

Beasainen bi orduko lanuztea egitea adostu zuten dendariak, piketeek eragotzi bazuten ere. Halaber, tabernariak arratsaldeko zazpietan zabalteko asmoa zuten, manifestazioaren ondoren, baina hainbat herritarren kontrako iritzia jaso eta gero, bederatziak arte ez zabaltea erabaki zuten. Txosnak gauerdian ireki zituzten.

Banketxeetan ere geldialdia izan zen nagusi, baina ez erabatekoa. Batzuk zabalik egon ziren eguerdia arte. Zerbitzu minimoei dagokienez, Renfek jarritako trenak eta Tolosa-Donostia ibilbideko autobusek normaltasunez bete zituzten, baina hiri barneko autobusek arazoak izan

zituzten lehen orduetan, eta eguerdia arte ez ziren normaltasunez aritu. Halaber, zabor biltzaileak ez ziren aterra bezperan.

Zentro nagusiak itxita

Gipuzkoako zentro komertzial nagusiek ez zuten ireki:

MercaOiertzun, Pryca, Alcampo, Garbera eta Txingudi. Zarauzko Maxi Eroskik zabaldu zuen, baina 70 lagunek osaturiko piketeak itxiaz zuten. Gainerako dendek, bakan batzuek izan ezik, ez zuten ireki Zarautzen. Hori izan zen Gipuzkoako herri gehienetako joera.

Herri batzuetan, ordea, ateak irekitzeko erabakia hartuta zuten dendariak. Lasarte-Oriako kasua da. Aterpe elkarteko dendariak hamarrek arte zabaltea erabaki zuten, baina batzuk eguerdian oraindik zabalik zeuden. Beasaingo dendariak normaltasunez ireki eta 12:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 20:00etara itxeko akordioa zuten, baina piketeen eraginez itxita egon ziren egun osoan zehar.

Gipuzkoako Merkataritza Federazioak ohar batean azaldu zuenez, «Gipuzkoako dendarien gaurko (atzotik) asmoa izan da ateak irekitzea, baina, piketeen eragi-

■ Grebaren jarraipena

• Ondorengo 50 langiletik gorako enpresa eta erakundeetan grebak erabateko jarraipena izan zuen, LAB eta ELA sindikatuek eman zuten informazioaren arabera.

1. Altos hornos de Bergara
2. Altuna y Uria (Azpeitia)
3. Angel Iglesias S.A.-Ikusi (Donostia)
4. Astilleros Balenziaga (Zumaia)
5. Astilleros de Pasaia
6. Balenziaga (Eibar)
7. Bellota (Legazpi)
8. Bilore (Zaldibia)
9. CAF (Beasain-Irun)
10. Conostrucciones Moyua (Donostia)
11. Egunkaria (Andoain)
12. Elf Atochem (Hernani)
13. E. Orbegoza (Zumarraga)
14. El Diario Vasco (Donostia)
15. Euskal Telebista (Donostia)
16. Euskotren
17. Fabrica Municipal de Gas (Donostia)
18. Fundiciones del Estanda (Beasain)
19. Gara
20. Gipuzkoako Ospitaleak
21. GSB Aceros (Azkoitia)
22. Guascor Interdiesel (Zumaia)
23. Gupost (Donostia)
24. INQUITEX (Andoain)
25. Ingemar (Usurbil)
26. Jaso Idiazabal
27. Krafft (Andoain)
28. Marcial Ucin (Azpeitia)
29. Moulinex (Urnieta)
30. Michelin (Lasarte-Oria)
31. Obe Hettich (Aizarnazabal)
32. Orbelan plasticos (Andoain)
33. Papelera del Oria (Zizurkil)
34. Papresa (Errenteria)
35. Pryca (Oiartzun)
36. Ramon Vizcaino (Donostia-Oiartzun)
37. Rodisa (Elgoibar)
38. Sapa (Andoain)
39. Union Farmaceutica Guipuzcoana (Donostia)
40. Unipapel (Aduna)
41. Voith Sulzer Paper Tec (Tolosa)

nez, gehiengoak itxi egin behar izan du». Lan astearen murrizketaren «erabat aurka» azaldu zen Merkataritza Federazioa, «komertzio txikiari saltegi handien aurrean kalte handia eragingo baitio». Irtenbide «orokorrak» bilatzeko eskatu zuen.